

SUBH, KALIFAREN KUTUN BASKOIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Kordoba, 996. Subh eta Almanzorren arteko aliantza politikoa hautsi zen, hongoi urtez kaliferriko boterea *de facto* bien eskuetan egon ondoren. Bigarrena, buruzagi militar eta politiko ezaguna, *sayyid* (jaun) eta *malik karim* (errege noble) izendatu zuten 998an eta Al-Andaluseko agintari gorena izango zen kalifa izan gabe ere. Lehena, Subh umm Walad, Alhaken II.a kalifa ohiaren kutunena eta Hisham kalifaren ama, gortetik egotzi zuten eta 999ko abenduaren 11n hil zen.

Subhi *al-Basuniyya* ere esaten zioten, baskoia alegia, euskal jatorrikoa zelako. Ez dakigu zehatz-mehatz non eta noiz jaio zen, baina bai haurra zela gatibu eraman zutela Kordobara eta han gawari edo esklabo kantari izateko hezi zutela. Ilhoria eta ederra omen zen, eta jakin-min asezinari esker hainbat arte eta ezagutza menderatu zituen. Alhaken II.aren haremean toki nabarmena eman zioten ezaugarri horiek, eta 962an kalifaren lehen semeaz erditu zenean, haren kutunena bihurtu zen.

Kaliferriko haremetan ohikoa zenez, Subhen bizimodua oso mugatuta zegoen. Baina kalifari seme bat –eta georago beste bat– emanda, agintariak ez zuten hain estu hartu; opariz eta adeita-

sunez betetzen zuen, eta tarteka, Medina Azaharatik kanpo ibiltzen uzten zion, gizonezkoz jantzita, Bagdadeko mutil gazteen modari jarraituz eta Djafar ize-na erabiliz.

Hala ere, erosi eta Alhakenekin ezkonduarazi zuten esklaboa baino ez zen. Beraz, ez zeukan ez ondasunik ez eskubiderik. Eta semeak egoera berean egongo ziren adin txikikoak izan bitartean. Bere egoera pribilegiatua eta semeentzat tronua ziurtatzeko bere alde egingo zuten funtzionario efizienteak eta baliabideak bildu behar zituela bazekien. Lan horretan, 967an, Almanzor gaztearekin egin zuen topo, eta bere babesean hartu zuen. 972an lehen kargu militarra lortu zuen Almanzorrek eta, 976an, Alhaken II.a hil eta Hisham seme gazteena kalifa izendatu zutenean –zaharrena, Abderraman, 9 urte zituela hil zen–, kaliferriaren kontrola eskuratu zuen, kalifa berriaren amarekin batera. Zurrumurruek zioten maitaleak zirela; ez dakigu etekin sexualik aterazi zioten harremanari, baina politikoa behintzat bai.

Hala, Iruñeko Erresumatik esklabo eramandako neskato hura Al-Andaluseko pertsonarik boteretsuenetakoa izan zen. ■

'Zamorako potoa' izeneko pieza, Subh-i oparitu ziotena Alhaken kalifaren seme zaharrenaz erditu zenean.



Hanibalek Alpeak zeharkatzeko egin zuen ibilbidea argitu du mikrobiologiak

K.a. 218. urtean Hanibalen gudarosteak balentria handia –eta estrategikoki oso eraginkorra– egin zuen Alpeak zeharkatuz. Baina zer ibilbide egin zuten mendilerroa gainditzeko? Gavin de Beer (1899-1972) enbriologoa izan zen kartagoarraren soldadu, zaldi eta elefanteek Traversette pasabidea (3.000 m inguru) erabili zutela proposatzen lehena.

Torontoko York Unibertsitateko Bill Mahaney buru duen ikerlari taldeak tesi

hori egiaztatu du orain. Garai horretan Traversettetik gertu animalia gorozki pilaketa masiboa izan zela ikusi dute, kartagoar zalditeriak eragindakoa. Gorozkiak, jakina, berehala desagertu ziren, baina mikrobiologoek aztertu ahal izan duten aztarna utzi zuten: milaka urtez bizi ohi diren klostridia bakterioak. “Zomorro horietan, zehazki, inbasio punikoen garaiko marka genetikoak topatu dugu”, *Archaeometry* aldizkarian adierazi dutenez. ■



BSK